

HIPIKAREN ARAU ESPEZIFIKOAK 2020-2021 IKASTURTERAKO

1. Kirol-diziplinaren lehiaketa-jardueren izena.

HIPIKA

2. Kirol-diziplinaren lehiaketa-jardueren joko-erregelamenduak.

EZ DAGO ALDAKETARIK

3. Kirol-federazioek antolatutako lehiaketa edo jardueretarako jarduera-arauak.

Zonaka bereiztea, bai hesien bidez, bai aglomerazio-puntuak saihestuz.

Laguntzaileek debekatuta dute ukuiluetara, korridoretara... sartzea.

Pistak eta aldagelak

Begiraleek beti eramango dute maskara, poni zaldien banaketa egingo dute, betiere pilaketak saihestuz.

Zaldiak prestatzen diren bitartean eta eremu komunetan, maskara erabili beharko da nahitaez.

Arreta berezia jarri beharko da jarduera amaitu ondoren erabiltzen diren ekipoak eta materialak garbitu eta desinfektatzean.

Jarduera egiten ez den bitartean, guztiek eraman beharko dute maskara, segurtasun-distantzia manten badaiteke ere: 1,5 m.

Ikasleak klasean daudenean (zaldiz), ez da derrigorrezkoa izango maskara.

Zaldientzako dutxen gunean, itxaronaldi bat egingo da errenkadan, eta segurtasun-tarteak gordeko dira; gehienez ere 5 zaldi.

Sarreran, ukuiluen eta espazio komunen eremuan, eskularruak eta hidrogela egongo dira.

Eskolak emateko sarrera-taldeak ezarriko dira, pistaren metro karratuei dagokienez.

Talde bakoitzeko pistara begirale bakarra sartu ahal izango da; osasun-arauei dagokienez, araudi erkidean xedatutakoa beteko da.

Taldeek 10 binomio izango dituzte gehienez.

Jarduera amaitu ondoren, ikasleek desinfekzioari ekingo diote eskuak garbituz eta hidrogela erabiliz, eta instalazioetatik alde egingo dute, hurrengo taldeari lekua utzita, pilaketarik egon ez dadin.

Klubak, klase bakoitzaren ondoren, ekipoa desinfektatuko du.

4. Erakunde parte-hartzaileen barruan egin beharreko entrenamendu eta saioetarako jarduerak.

Ez da ezer espezifikorik aurreikusten